



Auto-atxikimendua: enplegu-planen estaldura handitzeko mekanismo gisa Erresuma Batuan

2012tik, Erresuma Batuak pentsio-planetan auto-atxikitze mekanismoa aplikatzen du, hau da, langileak automatikoki sartzen dira erretirorako aurrezki-planetan. Hamarkada baten ondoren, sistemaren arrakasta egiaztatzen da, estaldura zabala (enpleguaren % 77) eta uzte-tasa oso txikia (% 7) erregistratzen baitu. Gainera, nabarmentzekoa da National Employment Savings Trust (Nest) sortu izana, sistemaren ezarpena bultzatzeko funtsezkoa izan den kostu txikiko funts publikoa.

Auto-atxikimendua 22 eta 66 urte arteko langileei eta 10.000 libratik gorako urteko soldata dutenei aplikatzen zaie. Gutxieneko ekarpena % 8koa da, eta honela banatzen da: soldatapekoaren ekarpena (% 4), enplegatzailearena (% 3) eta zerga-arintzea (% 1). Inskribatutako pertsonen afiliazioari uko egin diezaiokete, baina enpresek hiru urtean behin inskribatu behar dituzte afiliazioari uko egin dioten langile hauek.

Sistemaren estaldura kolektibo zaurgarriengana (gazteak, lanaldi partzialeko enplegua, etab.) zabaltzeko asmoz, hiru erreforma kontuan hartzen dira, 2017an sistemaren berrikuspenean Gobernuari egindako gomendioekin bat datozenak:

- Auto-atxikitze adin-muga 18 urtera arte murriztea, langileak ia lehen enplegutik sisteman sartuz, horrela 22 urtetik aurrera egindako ekarpenak soldataren murrizketa gisa ikus ez ditzaten eta sistematik ateratzea erabaki ez dezaten.
- Gutxieneko diru-sarreraren muga (10.000 £) kentzea, errenta baxuak eta lanaldi partzialeko enplegua dituzten pertsonen sarbidea errazteko.
- Diru-sarreraren langa kentzea, ekarpenak kalkulatzeko diru-sarrera konputagarriak¹ mugatzen dituen eta bereziki diru-sarrera baxuenak dituztenei eragiten diena (emakumeak, gazteak, lanaldi partziala).

Auto-atxikimendua beste herrialde batzuetan ere aplikatzen da, Irlandan eta Zeelanda Berrian kasu.

Iturria: Geuk egina, IPE eta Europako Batzordea oinarri hartuta

La autoadhesión como herramienta para ampliar la cobertura de los planes de empleo en el Reino Unido

Desde 2012, Reino Unido aplica el mecanismo de auto-adhesión en planes de pensiones, que consiste en incorporar automáticamente a las personas trabajadoras en planes de ahorro para la jubilación. Tras una década, se constata el éxito del sistema que registra una amplia cobertura (77% del empleo) y una tasa de exclusión baja (7%). Además, destaca la creación del National Employment Savings Trust (Nest), un fondo público de bajo coste que ha sido clave para impulsar la implantación del sistema.

La auto-afiliación se aplica a las personas trabajadoras de entre 22-66 años y con un salario anual de más de 10.000 libras. La contribución mínima es del 8%, que se distribuye entre la aportación de la persona asalariada (4%), del empleador (3%) y la desgravación fiscal (1%). Las personas inscritas pueden renunciar a la afiliación, pero las empresas deben volver a inscribir cada tres años a las personas empleadas que hayan renunciado a la misma.

Con el objetivo de ampliar la cobertura de este sistema hacia los colectivos vulnerables (jóvenes, empleo a jornada parcial, etc.), se incluyen tres reformas que se alinean con las recomendaciones realizadas al Gobierno en la revisión del sistema en 2017 :

- Reducir el límite de edad para la auto-adhesión hasta los 18 años, incorporando a las personas trabajadoras al sistema desde su primer empleo para que no vean las aportaciones como una reducción de su salario a partir de los 22 años y opten por excluirse del sistema.
- Eliminar el límite de ingresos mínimos (10.000 £) con el objetivo de favorecer el acceso a las personas con rentas bajas y empleo a jornada parcial.
- Suprimir el “umbral de ingresos”, que limita los ingresos computables¹ para calcular las aportaciones y afecta sobre todo a las personas con menores ingresos (mujeres, jóvenes, jornada parcial).

La autoadhesión se aplica también en otros países como Irlanda y Nueva Zelanda.

Fuente: Elaboración propia a partir del IPE y Comisión Europea

¹ Ekarpenak diru-sarrera konputagarrien arabera kalkulatu dira; 2021/22an urtean 6.240 £ eta 50.270 £ artean kokatzen dira. / Las aportaciones se calculan en función de los ingresos computables, que en 2021/22 se sitúan entre las 6.240 £ y 50.270 £ anuales.